

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2012ko uztailearen 5a. IX. urtea. 2.379. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Gazteluko Udalak Udaberrik «manipulazioan oinarritutako informazioa» eman duela dio

Oposizioak egin berri dituen akusazioak «Bilduren aurka EAJ alderdiak diseinaturiko estrategiaren barruan» kokatzen ditu udalak

Udalaren aurka Udaberri taldeak orain arte jarri dituen salaketa guztiak galdu egin dituela gogora ekarri du Bildu alderdiak ◊6



Gazteluko alkatea, Mikel Belloso, eta Bilduko zinegotziak, herritarrez inguratuta, Gazteluko udaletxean. I. TERRADILLOS

Eneko Lasa
Arrantzalea

«Munduko txapelketetan arrantzan egiteko hainbat modu ezagutzeko aukera izan dut »

Alegiarrak laugarren aldiz hartuko du parte Munduko Arrantza Txapelketan

Elkarrizketa ◊4

Juan Mari Mujika atxilotu du Frantziako Poliziak, Barkoxen

Ataunen jaio bazen ere urteak eman zituen Amezketan bizitzen Domintxainera joan aurretik; Amezketan elkarretaratzea egin zuten, atzo, atxilotzea salatzeke ◊4

Teresa Hernandez
Konfia enpresako kudeatzailea

«Etxeko zerbitzuen arloan, kultura aldaketa egin behar da»

Urtebete egin dute Tolosan, udalaren lokal batean

Elkarrizketa ◊3

Merkealdiko prezioak ohi baina baxuagoak dira aurten, krisiak bultzatuta

Agustin Aduriz Tolosaldea Garatzeneko merkataritza sustapeneko arduradunaren hitzetan, udaberriko salmentak kaskarrak izan ziren eta horrek ere eragina izan du beherapenetan; bestalde, Tolosa & Co-k mila kontsumizio oparitutako ostalaritzan, uztailean eta abuztuan ◊2

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



Tolosaldeko merkatariek udazkeneko kanpaina bereziak prestatzen ari dira jada

Itzea Urkizu

Azken urteotako eskaintzarik onenak egin behar izan dituzte aurten merkatariek, udako merkealdi hasieran. Pasa den astelehenean hasi ziren dendetako beherapenak, eta Tolosaldea Garatzeneko merkataritza sustapenerako arduraduna den Agustin Adurizek, honakoa baieztatu du: «Krisi ekonomikoak bultzatuta, prezioak ohi baino baxuagoa dira aurten, bai».

Udaberriko salmentak, ohi baino kaskarragoak izan direla nabarmendu du Adurizek, eta ekonomiarene egoerari, eguraldia ere gaineratu dio merkataritza sustapenerako arduradunak: «Udaberria nahiko latza izan da, eta eguraldiak ere ez du gehiegi lagundu. Orain, saldu ez diren produktu horiek aurrera ateratzea espero dugu. Merkealdia hasi besterik ez da egin, eta ezin dut baloraziorik egin, baina kalean jendea ikusi dut dendetan, eta hori seinale ona da».

Honen harira, herritarrek udaberriari egin gabe utzitako erosketak, merkealdiko beherapenak probestuz egingo dituztela aurrerikusi dute Tolosaldeko merkatariek; Agustin Adurizek jendeak prezio berezi hauek probesten eta eskertzen dituela nabarmendu du.

Udako beherapenak hasi besterik egin ez diren honetan, ordea, eskualdeko merkatariek buru-belarri lanean ari dira, datorren udazkeneko kanpaina eta promozio bereziak prestatze bidean. «Urtean zehar, merkealdi edo beherapenak ez baldin badira, eskaintza nahiz zozketa bereziak izango dira aurten», azaldu du Adurizek. Orain prestatzen duten guztia, eskualdeko kontsumoa sustatzeko izango da, jendeak erosketak herrian bertan egiteko. «Mugitzen dena, behintzat, Tolosaldean mugi dadila», dio Agustin Adurizek.

Bide horretan, Tolosaldeko merkatarien aldartea ona dela



Pasa den astelehenean hasi zen udako merkealdia, eta merkatariek udaberriko galerak gaintzea espero dute. I.URKIZU

Sekula baino eskaintza hobegoekin hasi da merkealdia eskualdean

azpimarratu du Adurizek: «Egia esan, eskualdean, beste zonalde batzuetan baino egoera hobea dugu. Adibidez, ez da nabarmena izan denden itxiera; alderantziz, irekiera berriak ere izan dira».

Adurizek, Tolosaldeko merkatariek egoera duintasunez eusten ari direla azpimarratu du: «Sektorean urte gehien daramatzaten merkatariek, bederatzi edo hamar urtez behin nolabaiteko beherakada izaten dela bada-kite, eta beti izaten dira krisialdiak, hau luze suertatzen ari den arren». Horrela beraz, eta «irabaziak sekulakoak izan ez diren arren», Ibarra, Villabona eta Tolosako merkatarien elkarteak «aurrera egiteko moduan» direla azaldu du Tolosaldea Garatzeneko merkataritza arduradunak.

Herrian bertan erosteko bideak

Urte osoan zehar, eta merkealdi garaian bereziki, hiriburu nahiz saltoki handietan erosketak egiteko joera nabarmena izaten da.

Tolosaldean, merkataritzaren

arloan lanean ari direnek hainbat buelta eman dizkiote kontu honi, eta helburu argi bat dute: erraztasun guztiak eskaini behar dizkiete herritarrei, erosketak bertan egin ditzaten.

Bide horretan, Tolosa & Co elkarteak merkatariek, Tolosa merkatalgune handien pareko hirigune komertziala izatea nahi dute. «Hori lortzeko, zenbait zer-

Udaberriko kanpainako salmentak ohi baino kaskarragoak izan dira aurten

Merkatariek erraztasunak eskaini nahi dituzte, jendeak bertan erosteko

bitzu eskaini behar dira, kalitate-dun komertzioaz haratago: apar-kalekuak edo jendea hona erraz iristeko modua, adibidez. Garaio publikoko sareekin ordutegiak eta adosten ari gara jada», nabarmendu du Adurizek. Hau guztia, ordea, epe luzearako lana dela dio merkataritza arduradunak, eta eragile askoren elkarlanak fruituak gerora ematen dituela azpimarratu du.

•tolosa@hitza.info



Inoiz baino eskaintza hobekoak izango dira aurten. I.URKIZU

1.000 kontsumizio opari, uztailan eta abuztuan

I.Urkizu Tolosa

Tolosa & Co elkarteak ostalariek 1.000 kontsumizio doan eskainiko dituzte uztailan eta abuztuan.

San Joan jaien harira, Tolosa & Co elkarteak ostalariek ere aurrerantzean elkarteak kide izango direla jakinarazi zuten.

Hain zuzen ere hau ospatze aldera antolatuta dute 1.000 kontsumizioen egitasmoa.

Elkarteak kide diren taberna,

pub eta jatetxeetan gozatu ahal izango da promozioaz.

Gasolina ere merkeago

Tolosa & Co merkatariek elkarteak, era berean, gogora ekarri nahi izan du, Tolosa & Co Visa txartela duten herritarrek, gasolina ere merkeago eskuratzeko aukera izango dutela Arriaran gasolindegian. Ordainketa txartelarekin egin ez gero, %2ko beherapena eskuratzeko aukera izango da.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KEY-LAN
Sarraigineza

Nafarroa etorb. 13 behean - TOLOSA
Abuz. 670 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Teresa Hernandez ◊ Konfia enpresako kudeatzailea

Konfiak urtebete egin du Tolosan. Etxeko lanen eta nagusien zaintzen arloan zerbitzuak eskaintzen dituzte. Langileak erregularizatuta egotea da enpresaren helburuetako bat.

«Bateragarritasun zerbitzuen %95a ekonomia ezkutuan egiten da»

Imanol Garcia Landa

Tolosako Udalarekin sinatutako akordioaren bidez, Konfia enpresak urtebete egin du Nafarroa etorbideko 6. zenbakian, udalaren jabetzako lokal batean. Enpresako kudeatzailea da Teresa Hernandez (Zumarraga, 1971), eta beharrezkotzat jotzen du jendearen sentsibilizazioa, etxeko lanen eta nagusien zaintza ekonomia ezkutuan bidez ez dadin bideratu.

Zein arlotan lan egiten du Konfiak?

2008an jaio zen Konfia. Gizarteratzeko enpresa da, irabazi asmorik gabekoa. Enpresa sortu genuenean bi helburu garbirekin egin genuen: batetik, profesionalen bitartez bateragarritasun zerbitzuak ematea gizarteari, hau da, nagusiak eta haurrak zaintzea, etxea garbitzea..., eta, bestetik, hein handi batean ekonomia ezkutuan dagoen arlo hori erregulatzea eta hor lanean ari diren emakumeak profesionalizatzea. Lasarten hasi ginen, lehen egotza bertan irekiz, pixkana beste udalerrri batzuetan bulegoak irekitzeko asmoarekin. Eskaera dagoen heinean, udalerrri bertako emakumeak kontratatzearen konpromisoa hartzen dugu udalarekin eta gizarte zerbitzuekin.

Zenbateraino dago arlo hori ekonomia ezkutuan barruan?

Arloaren %95a ekonomia ezkutuan dago. Ez gara oharitzen zenbateraino eramaten dugun gizartea gainbeherara ekonomia ezkutuan parte hartzen dugunean. Hori lantzen ari gara hainbat udalerrietako udalekin, hau da, erakunde, udal eta enpresa guztiak eskutik joan behar dugu aldaketa eman dadin. Krisi garai hauetan oharitu behar gara ekonomia ezkutua bultzatzea denen kalterako dela. Sakratuena duguna, hau da, gure haurrak eta nagusiak, ezagun baten, eta batzuetan ezezagun baten, esku uzten dira egun. Azken finean, lana kontratatzen duen pertsonarekin onuragarria da arloa erregularizatzea. Gainera, legea hausten ari gara, langile bat modu irregularran baitugu. Konfia bezalako enpresa baten bitartez, kontratatzen dituzte zerbitzuen ikuskaritza duzu, kalitate baremo jakinekin, seguruekin, bajak gertatzen direnerako edo oporretarako ordezkaketak egiteko aukerarekin...



IGL

Zer lan egiten duzue Tolosan?

Tolosan urtebete daramagu eta gure konpromisoa da zerbitzu guzti hauek dinamizatzea merkatu arruntan, eta Tolosako emakumeak kontratatzea. Nerea Azpillaga da Tolosako bulegoan egoten den teknikaria eta erakunde eta elkarrekin harremanetan jarri da gure zerbitzuen berri emateko.

Zer balantze egiten duzue Tolosako egoerari buruz azken urte honetan?

Ikusten dugu nahiko geldirik dagoela. Egia da krisi garaian gaudela eta horrek ez duela laguntzen, eta horrek ere ekonomia ezkutuan handitzea ekartzen duela. Gainera, ekonomia ezkutuan prezioen jaitsiera izugarria ematen ari da, eta esan digute ordua bost eta sei euro kobratzen ari direla. Ez dago enpresarik, pezioak ahal duzun gehienera estutu nahi arren, horrekin lehiatu daitekeenik. Nire ustez udalerrian sentsibilizatu egin behar da zerbitzu horien baloreen inguruan. Lehen esan dugun bezala, edozein eskuetan utziko duzu gehien maizragaria da arloa erregularizatzea. Gainera, legea hausten ari gara, langile bat modu irregularran baitugu. Konfia bezalako enpresa baten bitartez, kontratatzen dituzte zerbitzuen ikuskaritza duzu, kalitate baremo jakinekin, seguruekin, bajak gertatzen direnerako edo oporretarako ordezkaketak egiteko aukerarekin...

zua helerazi behar diogula jende-ari, pixkana sentsibilizatu daitezzen, kontratazioak merkatu arruntan egin daitezzen eta, beraz, langileak lan baldintza egokiak izan ditzaten.

Nola aldatu daiteke egoera hori?

Nire ustez kultur aldaketa egin behar dugu gizartean eta langileen artean. Inork ez du esaten enpresa batera doala lanera eta pozik dagoela beltzean ordainduko iruditzen zaio beltzean lan egitea. Beraz, gure helburua da kultur aldaketa hori egiteko lanean jardutea, emakume horien kontratazioa bultzatzea eta kalitatezko zerbitzua ematea.

Orain gutxi aldaketa izan da legegintza eragin inguruan. Zer suposat du horrek?

Etxeko langilearen egoera aldatu egin da, baina legediak ez du langile orokorraren egoeraren pare jarri. Gure enpresaren bitartez lan egiten dutenak langile orokorraren baldintza berdina dute. Bestalde, norbaitek bere etxean lan egiten duen langile baten egoera erregularizatu nahi badu, kudeaketa horretan laguntzen dugu. Egia esan, lege moldaketa hori langileen egoera erregularizatzeke egin bazen ere, ez da ikusi aldaketa handirik. Bestalde, mentekotasun legearekin familiek justifikatu egin behar dute zaintzaile baten kontratazioa diru laguntza jasotzeko. Baina menpe-

kotasuna duten pertsonen zaintzaileak ez dira etxeko lanetako langileak. Edozeinek ezin dizki nagusi bati zaintzak egin edota mugitu. Formakuntza behar da horretarako.

Ekonomia ezkutuan bereziki eragindako lan egoera erregularizatu gabe duten atzeritarrei, ezta?

Etengabeko katea bultzatzen da ekonomia ezkutuan: paperak ez dituen pertsonak egoera horretan jarraitzea eta gainera beraien egoeretzat aprobetxatzea zerbitzuarengatik gutxiago ordaintzeko. Administrazioa ez da joango etxetik ikustea zein den egoera. Familiek hartu behar dute ardurua hori eta, bestalde, kalitatezko zerbitzuak eman behar zaizkie, hau da, ama edo aita ondo zainduta izan nahi badute, bilatu ditzatela profesionalak.

Zuen langileak emakumezkoak bakarrik dira?

Badago gizonetako bat, baina orokorrean enpresara etortzen diren hautagai konpuru handienera emakumezkoak dira. Hala ere, familia batzuetan eskatu dute gizonetako bat joatea bere etxera. Ekonomia ezkutuan eragin handiagoa du emakumezkoetan. Diskriminazio bat sortzen da, bigarren mailako lan bat izango balitz bezala hartzen delako. Eta lan hori beste edozein lan bezain profesionala da. Gainera, gu beste lan batzuk egiten ari garen bitartean, lasai gaudu gure senideak ondo zainduta daudelako.

PP alderdiak Tolosako Udalaren lehen urtea kritikatu du

PPk dioenez, udal gobernua «aurreko legegintza martxan jarritako proiektuak ezbaian jartzen ari da»

I. Garcia Landa

Tolosako PP alderdiko Angel Yañez eta Pello Atxukarro bozeramileek udalaren lehen urtearen balantze ezkorra egin dute. PPK azaldu duenez, «dirudienegun go udal gobernuaren kezka nagusi aurreko udal gobernuak, tartean gure parte hartzearekin, martxan jarritako proiektuak ezbaian jartzea da». Bestalde, asko kezkatzen die «Bildu erakusten ari den irudi faltsua, hau da, elkarriketazalea eta gehiengoaren erabakiak errespetatzen dituenarena». Alderdi polularrak gaineratu duenez, «azken finean totalitario batzuk dira, interesatzen ez zaion galetan ez dute parte hartzea bultzatzen». Horren adibide gisa «atez atekoaren inposizioa» jarri dute: «Herriaren parte hartzea eta erabakia ez ezatzen dute».

PPren iritziz, hainbat proiektu «alde batera utzi» ditu egungo udalak: «Euskal Herria plazako zentro sozialeko berrikuntza integrala alokairuzko etxebizitza eta gazteentzako aterpetxea egiteko; Amarotz auzoaren handitzea, etxebizitza sozialentzat %50a izanik; Berazubiko etxebizitza sozialak; Larramendi auzoko proiektua gelditu dute, lurperatzea ez egiteko asmoz, baina poztan gara bizilagunen gehiengoak lurperatzearen alde egin izana». Horrez gain, Tolosako Alderdi Popularra atez atekoaren aurka azaldu da.

Iragarki laburrak

ALOKAGAI

■ Oporretako apartamentua.

Peñiskolan, 7 pertsonentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean dago. 2 balkoi, 2 igogailu, 2 igorileku, aire egokitua eta parking-a dauka. Interesatuek deitu 696602527 telefono zenbakira.

SALGAI

■ Autoa. Suzuki Vitara 2000

HDI. 100.000 kilometro dauka eta oso egoera onean dago. Aukera paregabe! Interesatuek, deitu 649 510941 telefono zenbakira.

Juan Mari Mujika atxilotu du Frantziako Poliziak

Amezketan atzo arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Mujikaren atxiloteta salatze

Erredakzioa Amezketan

Frantziako Poliziak Juan Mari Mujika Dorronsoro atxilotu zuen atzo goizean, Barkoxen. Polizia operazioa Guardia Zibilarekin batera egin zuen Frantziako Poliziak. Ataundarra da Mujika, baina urte askoz bizi izan zen Amezketan. Domintxainera (Zuberoa) joan zen ondoren, bizitzera.

Polizia iturriek Mujikari leporatzen diote 2001. urteko hauteskunde kanpainan, orduko Espainiako presidentea, Jose Maria Aznar, hiltzeko atentatu saioan misilak jaso eta entregatzeko arduraz izatea.

Amezketako ezker abertzaleak deituta, atzo elkarretaratzea egin zuten Amezketan. Juan Mari Mujikari eta bere familiari babesa agertu zioten, eta atzoko atxiloteta salatu zuten. Tolosaldeko ezker abertzaleak ere, Juan Mari Mujika errefuxiatu politiko amezketarraren atxiloteta salatu nahi izan du: «Ezker abertzalea Euskal Herriaren gatazka konponbidean urratsak ematen ari denean, espainiar zein frantziar estatuen eskuetatik errepresioa soilik jasotzen dugu. Ez dute auzardiarik konponbidearen aldeko lanean sartzeko». Antzinako errepresioa darabiltela eta hila-bete hau horren adierazle dela gaineratu dute. «Atxilotetak atxiloteten atzetik etorri dira», ekarri dute gogora.

«Gaurko atxiloteta, mediatizatu izan da, espainiar Barne Ministroak iragarria eta euren garraipen gisa irudikatu nahi izan dute», salatu du ezker abertzaleak. «Eskubideen urraketa sistematikoak komunikabideetan sal-

duaz». Tolosaldeko ezker abertzaleak salaketa gogorra eta senideei eta lagunei besarkada eta indarra eskaintzeaz gain, gatazkaren konponbidean emaniko urratsetan berresten dela adierazi du. «Hori da bidea eta horrek eramango baikaitu, aldebakarrez, herritarren nahiez, konponbide-».

Amaitzeko, «Amezketan burutuko diren deialdiekin bat egin eta bertara gonbidatzea geratzen zaigu», gaineratu dute ezker abertzaleak.

Poliziaren mehatxua

Mujikak 2008ko abenduaren 11n polizien jazarpena jasan zuela salatu zuen. Donapaleura erostekak egitera joan zen batean, hiru gizonak, poliziak zirela esanez, haien autora joateko esan zioten. Gero ohartu zen gizon haiek ez zirela frantses poliziak. Itxura guztien arabera, espainiar poliziak ziren.

Handik mendialdera eraman zuten, eta laku baten ondoko etxola batean galderak eta mehatxuak egin zizkioten. Preso zuen alabaren egoera baliatuz, kolaboratzea eskaini zioten, baina Mujikak ez zien berehala erantzun. Lanera joan behar zuela-eta, berriz eraman zuten hartu zuten tokira. Egun hartan bertan, beste hitzordu bat jarri zioten, baina Mujika ez zen hitzordu hartara agertu. Geroztik beldurrez bizi zela salatu zuen amezketarrak, eta ez zen ausartzen bakarrik ino-joatera. Salaketa aurkeztu eta beste euskal herritar batzuekin batera prentsaurrekoa eman zuen. Harrez geroztik, ez zuela beste mehatxurik izan argitu zuen Maritxu Paulus-Basurko abokatuak. Baionako instrukzio epaitegia salaketa ikertzen hasi zen. Bi orduz deklaratu zuen epailearen aurrean. «Horrek ez du esan nahi, egileak aurkituko dituztela eta epaiketa egingo dela», esan zuen orduan abokatuak.

Eneko Lasa > Arrantzalea

Espainiako jubenil mailako Arrantza Txapelketa irabazi eta gero, larunbatean Frantzian jokatu den Munduko Txapelketara joango da; laugarren urtez parte hartuko du mundu mailako lehian

«Erreketan oso ondo moldatzen gara, baina lakuak dira guretzat txarrena»

Eneritz Maiz Alegia

Bost urtetatik arrantza munduari lotuta dabil batera eta bestera Eneko Lasa (Alegia, 1994). Euskal selekzioarekin jubenil mailako Espainiako Arrantza Txapelketa irabazi ostean, larunbatean, Frantziara joango da Munduko Txapelketan parte hartzera.

Ekainaren 28tik uztailaren 1erako asteburuan jokatu zen, Leitzarain eta Araxes erreketan, Espainiako Txapelketa. Euli modalitatean lehiatzen da gaztea.

Euskal selekzioarekin hartu duzu parte Espainiako Txapelketan, eta txapeldun geratu zarete. Erraza izan zen garaipena eskuratzea?

Erraza ez zen izan, baina etxean jokatzeko guretzat oso errekak ezagutu egiten genituen. Arrantzan ondo egin genuen, eta dena ondo atera zitzaigun, eta txapeldun izan ginen.

Zein da sekretua?


Sekretu handirik ez dago. Etxean zen, eta dena ondo ezagutzen genuen, orduan hori izan zen gure abantaila. Eta taldekide guztiok oso ondo egin genuen arrantzan. Eguraldi oso ona egin zigun, eta errekak aukeran ur gutxiegi zerraman. Ur pixka bat gehiago izanez gero, amuarrain gehiago ibiliko ziren.

Zer lortu behar izan duzu jubenil mailan euskal selekzio kide izateko?

Euskal selekzioan sartu ahal izateko, lehenik eta behin Gipuzkoako Txapelketan lehen hiruzpalau postuetan sailkatu behar da. Ondoren, Euskadiko Txapelketan parte hartu behar da, eta hemen ere lehen hiruzpalau postuetan sartu beharra dago. Honela, Espainiako Txapelketarako sailkatzen zara.

Zein postu lortu dituzu zuek?

Gipuzkoako Txapelketan bigarren geratu nintzen, eta Euskadikoan irabazi egin nuen. Gero, asteburuan jokatu du txapeke-



HITZA

tan, Espainiakoan ere txapeldun geratu gara.

Nork osatzen duzue euskal selekzioa?

Zazpi partaidek osatzen dugu, baina lauek puntuatzen dutenez aukeraketa egin behar zen. Ni tartean nengoan, baina taldea zazpi osatzen dugu.

Zenbat selekzioaren aurka lehiatu zirenetan?

Ez dut oso ondo gogoan, bederatzid edo hamar ziren. Guztira, 44 arrantzale ibili ginen lehian.

Orain, Frantzian jokatu den Munduko Txapelketara joango zara.

Bai. Larunbatean joango gara, eta igandean taldeen aurkezpenak izango ditugu. Hilaren 9 eta 10ean, entrenamendu ofizialak egingo ditugu, eta hilaren 11tik 13ra txapelketa jokatu da. 14ean, sariak banatu dituzte, eta 15ean etxerako buelta egingo dugu.

Taldearekin joaten zara?

Bai, bost gara taldean. Bi euskal-Gipuzkoako Txapelketan bigarren geratu nintzen, eta Euskadikoan irabazi egin nuen. Gero, asteburuan jokatu du txapeke-

tan, Espainiakoan ere txapeldun geratu gara.

Ez da lehen aldian Munduko Txapelketara zoazena. Zer nolako esperientzia izaten da?

Laugarren aldian izango da, eta esperientzia oso ona da, polita. Jende asko ezagutzen duzu, eta baita arrantzan egiteko hainbat modu ere. 2008. urtean Portugalen izan zen eta bigarren sailkatu nintzen eta taldekakoan hirugarren geratu ginen. 2009an, Txekian, taldeka hirugarren sailkatu ginen eta 2010ean, Eslovakian, ere hirugarren postua eskuratu genuen. Iaz, berriz, ez nintzen sailkatu Munduko Txapelketara joateko.

Zer espero duzu Munduko Txapelketatik?

Aste Santuan entrenatzea joan ginen. Oso ondo joan zitzaigun, eta animatuta goaz. Errekan arrantzatzea oso ondo joan zitzaigun, baina lakuak dira guretzat txarrena. Ez ditugu ezagutzen. Baina esperantzarekin, eta gogorekin nago.

Munduko Txapelketari esker hainbat herrialde ezagutzeko aukera ere izan duzu.

Bai, Portugal, Eslovakia eta Txekia ezagutu ditut. Hala eta guztiz ere, lekuak ikusteko aukera handirik ez dut izaten. Goizean hiru ordu eta arratsaldean beste hiru ordu arrantzan pasatzen ditugu. Nekatuta iristen gara, baina buelta batzuk egiten ditugu gauz.

Akademia Pausoka
UZTAILA eta ABUZTUA **IRAILA**
 'First Certificate Exam' **Kurtso hasiera 2012-2013**
 Erreferentziak **Erreferentziak**
 Fiska, Kimika, Matematika... **Matematika gertak. Maiz gertak.**
 Martin J. Iraola, 2. behe 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 943.249.161 | 686.971.962

ERRETENGIBEL UDAL BAZKUNAK SALGAI DITUK
 • Rondilla kalea, 3. zenbakian 4 etxebizitza tasatu eta merkataritzako 160 m2-ko lokal bat.
 • Plaza Berria, 1. zenbakian etxebizitza bat.
Informazio gehiagorako deitu 618 77 29 54 telefono zenbakira.

Adunako Transernio Pilota Txapelketan 36 bikote ariko dira lehian, etzitik aurrera

Adunako Pilota Eskolako hainbat gurasok antolatuta dute pilota txapelketaren bederatzigarren edizioa

Asier Imaz Aduna

Adunako pilota eskolako gurasok duela bederatzita urte hasi ziren Adunako Transernio Pilota Txapelketa antolatzen. Larunbat honetan, edizio berri bati hasiera emango diote, ondorioz, eskualdeko gaztetxo ugari Adunako pilotalekuan txapelketa bat jokatzeko aukera izango dute.

Hasiera batean, pilota eskolako irakasleak esanda, gurasoek herriko festetan partida batzuk antolatu zituzten, jaialdi moduan. Egungo txapelketa, ordea, Adunako enpresa baten bultzadaz sortu zen. Javier Zabala antolatzailearen esanetan, «Transernio herriko garraio enpresa bat da, eta pilotaren alde zerbait egin nahi zuela esanaz etorri zitzaizgun. Bere babesarekin, bere izena duen txapelketa antolatu genuen. Egun, gastuak ordaintzen jarraitzen du Transernio enpresak».

Uztailaren jokatzeko dira kanporaketa partida guztiak, eta fina-



lako Transernio Pilota Txapelketako partida, Adunan. I. GARCIA LANDA

↓ Partidak

UZTAILAK 7, LARUNBATA

ADUNAKO PILOTALEKUAN, 10:30ETIK AURRERA

- **Alebinak**
Usurbil-Andoain
Zizurkil-Aurrera Saiaz
- **Infantilak**
Amezketeta-Andoain
Aurrera Saiaz-Altzo

lak, herriko festen inguruan, hau da, abuztuko lehen asteburuan. Transernio Txapelketan lau mailako pilotarietako parte hartzen dute: benjaminak, alebinak, infantilek eta kadeteek. Zerrendak osatzeko, antolatzaileak inguruko pilota eskolekin jartzen dira harremanetan. Ondoren, eskolek

eurek aukeratzen dituzte bikoteak. Zabalaren esanetan, pilotari asko kanpoan gelditzen dira, denentzat txapelketa antolatzea zaila izango litzatekeelako. Aurtengoan Zizurkil, Andoain, Latsarte, Añorga, Usurbil, Aduna, Alkiza, Aurrera Saiaz, Intxaur eta Amezketako pilota eskolako haurrak etorriko dira Adunara, partida guztiak bertan jokatzeko baitira. Guztira 36 bikote lehiatuko dira, eta partidak larunbatetan eta igandetan izango dira, 10:30etik aurrera. Hala eta guztiz ere, asteburu honetan igandean ez da partidarik jokatu. Finalerdiak uztailaren 28ko asteburuan izango dira, eta finalak abuztuaren 4ean, arratsaldean. Orain arte, ikusleen erantzuna ona izan dela dio Zabalak, eta aurtengoan ere esperantza horrekin daude.

Gutuna

48 orduko greba orokorra!

Kapitalisten erasoaldi basati eta historikoari aurre egin behar diogu langile klasearen eta gazteriaren mobilizazio masibo eta eraginkorarekin. Ez dago beste biderik. Azken hamarkadetan langile klaseak ez du ezagutu horrelako erasorik, eta arrazoi horregatik oinarritzak da erasoaldiaren mailako borroka antolatzea burgesiaren aurka. Sindikatuetako arduradunek akats larria egin dute martxoaren 29ko greba orokor arrakastatsuari jarraipena ez ematen. Ez dira ari hainbat sektoretako borroka koordinatzen eta elkarrekin; ez eta kaleratzei aurre egiteko fabriketako borroka elkartzen. Borroka elkartuko litzatekeen eta benetako errebolta sozial baten baldintzak jarriko litzatekeen borroka planik gabe ez da posible PPren gobernua, CEOE patronal espainiarren eta Confesbask euskal patronalaren eraso planak gertatzea. Funtsezkoa da ezker abertzaleak, ELA eta LABek, CCOO eta UGTekin ekintza batasunean, 48 orduko greba orokorra antolatzea. Aldi berean, oinarritzak litzateke pauso hau denboran luzatuko litzatekeen borroka plan batekin (bere barruan mobilizazio eta greba orokor gehiago bilduko litzatekeen), eta kapitalismoaren aurkako alternatiba sozialistarekin lotzea. Mota honetako borroka plan batekin batera beharrezkoa da sistema finantzarioaren eta bankuen egoeraren aurrean alternatiba sozialista defenda-

tzea. Hasteko, sistema finantzario osoaren desjabetzea defendatu behar da, ez soilik ondoratuta dagoen zatiarena, PPK Bankia-rekin egin duen bezala. Desjabetze hau kalte-ordainik gabe egin behar litzateke, akzionista txikien kasuan edo bestelako beharrezko kasuetan izan ezik. Honekin batera, eraikuntza espekulatu eta zor publikoari esker aberastu zirenen ondasunak desjabetu behar dira. Bestetik, funtsezkoa da bankuen desjabetzea beheko kontrolarekin egitea, hau da, langile klasearen kontrolpean, mota guztiakotako maniobra, kapitalen ihesak eta ustelkeria saihesteko. Bukatzeko, bankaren desjabetzea industriaren eta multinazionalen desjabetzearekin osatu behar litzateke. Ekoizteko indar hauekin, herritarren onerako zuzenduta, inbertsio publikoko planak martxan jarri ahaliko lirarteke hezkuntzan, osasunean, industrian eta nekazaritzan, eta negozio txikiak dituztenen kontsumoa eta inbertsioa errazteko. Bankuen jabetzan dauden etxebizitza hutsak alokairu merkeekin erabili ahal lirateke, etxebizitzaren arazoa desagertaraziz. Ezker abertzaleko eta sindikatuetako agintarietako programa hau defendatzen badute, babes handia lortuko lukete, eta ez langile klasearen artean bakarrik, baita krisi kapitalistak kolpatutako erdi mailako sektoreen artean ere.

■ **Ibon Artola.** Euskal Herria Sozialistaren izenean.

Irudia Zizurkil



SUKALDARITZA UDALEKUAK, FRAISORON

Fraisoroko Itsasmendikoi Nekazaritza Eskolan sukaldari udalekuak egiten ari dira 14-17 urte bitarteko 23 gaztetxo. Ekainaren 28an iritsi ziren Zizurkilera, eta igande honetan itzuliko dira euren herrietara. Madril, Murtzia, Bartzelona, Mallorca

eta beste hainbat lekutatik etorri dira, udaleku giroan sukaldaritza munduan murgiltzera. Basque Culinary Centerrek antolatu ditu udaleku hauek, eta Fraisoroko ingurune aberatsa erabili dute ikastaroa gauzatzeko. HITZA

Uda honetan **zatoz HITZAren** itzalera

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau oparri!

Harpidedoren artean: **200cm x 75cm surfi taula** (indibiduala) erago.

Harremanetan: **902-83 02 01**
Hitzazalea@hitza.info

hitza



Mikel Beloso Gazteluko alkatea —erdian— eta Bilduko hiru zinegotziak, atzean babesa eman dieten herritarrek dituztela, herenegungo agerraldian. I.T.

«Batzoki batean diseinaturiko Bilduren aurkako estrategia da»

Gazteluko Udalak dio «gezurretan eta manipulazioan oinarrituriko informazioa» eman duela oposizioiko Udaberri taldeak

Euren aurka jarritako salaketa guztiak galdu dituztela adierazi du Bilduko udal gobernuak

Iñigo Terradillos Gaztelu

Gazteluko Udalen oposizioan dagoen Udaberri taldeari erantzunez, euren esandakoa «gezurretan eta manipulazioan oinarrituriko informazioa» dela adierazi dute Mikel Beloso alkateak eta udaleko Bilduko hiru zinegotziak. Udaberri taldeak «espekulatu eta herritarrek banandu» nahi dituztela adierazi zuten, hainbat herritarren babesarekin herenegun eginiko agerraldian.

Hirigintza «irregularitasunak» salatu ditu Udaberri, hain zuzen ere, plazaren aldameneko lur eremuan. Gazteluko Bilduren esanetan, baina, «Erbian Errekako etxebizitza proiektua aspaldi martxan jarritakoa da, legegintzaldi askotatik igaro dena, beraz, une politiko zehatz hau baliatu nahi izan dute akusazioak egiteko, estrategia zehatz bati erantzunez, batzoki batean Bilduren aurka diseinaturiko estrategia».

Gazteluko Udalaren ustez, «Udaberri taldearentzat edo EAJ-arentzat Bilduren aurka edozerk balio du: legegintzaldi eta administrazio zereginak blokeatzen saiatu, herritarren eskubideak urratu eta batzuetan poliziaren jazarpen eta erasoak sustatu, gogora ekarri behar baitugu, Er-

tzaintza bidali zutela Gaztelura pasa den ekainaren 7an egindako plenoan», adierazi dute.

Aurkako sententziak itxita

Beloso alkateak dioenez, Udaberri taldeak egindako akusazioak «ez dira berriak». Hainbat proiekturen aurkako salaketak jarri zituztela aurreko legegintzaldian gogoratzen du: «Guztietan sententziak itxita daude, galdu egin baitzituzten, horietan ere gezurra izan zutelako oinarri».

Udaberri euren dimisioa eskatu izanaz, «herrian herritarren eta korporazioaren arteko bata-

guna gero eta sendoagoa delako» egiten dutela dio Bilduk. «Sines-tezina da egunero herriarekin eta herriarentzako, apaltasunez eta zintotasunez egiten dugun lana hutsaltzeko horrelako lanak hartzea, jakinda alferrikako estrategia izan dela eta izango dela».

Era berean, ezkutatzeko ez dutela ezer diote, eta eskuak zabalik dituztela elkarlanean aritzeko. «Txosten teknikoak guztien eskura egon dira beti, udaletxeko ateari zabalik baitaude, eta horrela egongo dira aurrerantzean ere, parte hartzearen bitartez lan egin eta herri hau aurrera ateratzeko». «EAJ nola ausartu liteke Gazteluko Udala lapurtzat jotzera, jadanik gizarte osoak jakin duenean Gipuzkoako Aldundia eta hamaika udalerrri (Tolosa edo Ibarra tarteko) arruinatu dituztela. Guztiaren gaitetik beti Espainiari eskua emanda beraien negozio eta makroproiektu guztiak gizartearen beharren ordez, eu-

ren mesedetarako eta aberasteko moldatu dituztenean», adierazi dute.

Horren guztiaren aurrean,

Ezkutatzeko ez dutela ezer dio Bilduk, eta eskuak zabalik dituztela elkarlanean

«orain arte bezala, herritarrekin eta herriarentzako» jarraituko dutela lanean esan dute Gazteluko Bilduko ordezkariak. «Gure konpromisoa da indarrak metatuz herrigintzan aritzea eta gure nahia Euskal Herrian bizi ditugun une itzaropentsuek Gaztelun ere beraien hazia erelitea». Halaber, «ekarpenak egiteko garaia» dela, eta ez «oztopoak jartzeko» uste dute. «Giro baketsu eta lasaia gailentzeko garaia da, eta guk horren alde egingo dugu, horixe nahi baitu herriak», gaineratu dute.

Alkatearen eta Bilduko udal gobernuaren dimisioa eskatu dute

I. Terradillos

Udaberri taldeak pasa den hilean salatu zuenez, «Gaztelun hirigintza-irregularitasunak burutu dituzte, alkatearen eta Juan Jose Otegi erakitzailearen mesedetan». Hain zuzen ere, herriko plazaatik hurbil dagoen lur saillean eraikitzen ari diren bi familien-

tzako etxebizitzetara die erreferentzia salaketa horrek. Euren esanetan, «eremu hori 54.000 euren truke saldu zen, nahiz eta gutxienez 150.000 eurorengatik saldu beharko litzatekeen». Bada, administrazioarekiko auzi helegitea aurkeztua du Udaberri taldeak «irregularitasunak salatze-ko».

Era berean, «gaiarekiko infor-maziorik eza» zegoela adierazi zuten, eta «oso larritzat» jo zuten «eraikitzen ari diren bi etxebizitzetara jabeak eraikitzailea bera eta alkatea izatea». Hori dela eta, bai alkatearen bai eta Bilduko udal gobernuaren dimisioa eskatu zuten, eta herritarrez osaturiko gestoreak ordezkatzera.

Erein eta Leader programen bidez diru laguntzak eskatzeko aukera dago

Uztailaren 13ra arte dago eskaerak egiteko aukera; Tolomendi landa garapen elkarteak bideratzen ditu

I. Terradillos

Tolomendi, Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak landa ingurune herriarrei zuzendutako Erein eta Leader diru laguntza programak bideratzen ditu. Laguntza hauekin jardura ekonomikoa eta lanpostuen sorrera bultzatu nahi dituzte. Esaterako, jabetxe, denda edo bestelako lantegia duenak edo autonomia denak inbertsioren bat egin behar izanez gero, lagungarria izan daiteke diru laguntza hau.

Eskaerak egiteko epea uztailaren 13an, ostiralean, bukatuko da. Informazio gehiago nahi duenak Tolomendik, Tolosan, Nafarroa etorbidean duen bulegora jo dezake, 943 65 50 97 telefono zenbakira dei dezake edo tolomendi@tolomendi.net helbide elektronikora idatzi.

Datorren ikasturtean Alurrekin dantza egiten ikasteko aukera zabalik

Uztailaren nahiz irailean izena eman ahalko da; kultur etxean nahiz Alurren egoitzan eskura daiteke matrikula agiria

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Alurr dantza eskolan ikasteko datorren ikasturterako matrikulazioa egin nahi duenak uztail osoan eta irailean zehar horretarako aukera izango duela jakinarazi dute dantza eskolako ordezkariak.

Matrikulazioa egiteko agiria eta dantza eskolako ordutegiak Ibarra kultur etxean nahiz Alurr dantza taldearen bulegoan (Arantzazu kaleko 4. zenbakian, San Bartolome elizaren parean) eskuratu ahalko dira.

Informazio gehiago nahi duenak Alurr taldearen telefono zenbakira dei dezake (635 757 048), edota, bestela, www.alurr.net webgunera jo.

Hezkuntzaren murrizketen beldur dira Leitzaldean

Leitzako institutuan eta Aresoko herri eskolan Nafarroako Gobernuak hartutako neurriak salatu dituzte

Rebeka Calvo

Nafarroako Gobernuak hezkuntzan iragarritako murrizketek Leitzako Amazabal institutuan eta Erleta eskolan, zein Aresoko herri eskola izango dute eragina datorren ikasturtean. Nafarroako Gobernuak murrizketak bi aldetatik egin ditu, batez ere; irakasleei eskola ordu gehiago pilatu dizkiete, eta geletako ratioak handitu dituzte. Ondorioz, Leitzako Amazabal institutuan zein Aresoko herri eskolan, «hezkuntzaren kalitatea jaitsi» egingo dela diote.

Hezkuntza pribatizatuz

«Hezkuntza publikoa pixkana, pribatizatu nahi dute, ez dago besterik», dio Aresoko herri eskolako Susana Lasarte irakasleak.

Aresoko eskolan datorren ikasturtean 24 ikasle izango dira, eta bi tutore izango dituzte, haur hezkuntzarako bata, eta lehen hez-

kuntzarako, bestea. Berez, ez dute irakasle murrizketarik izango, baina daudenak baldintza okerragotan egingo dute lan, saioak igo dituztelako. «23 saiotik 25era pasako gara, eta beraz, presaketarako denbora gutxiago izango dugu... Zaintzak ez ditugu beteta izango eta beraz, taldeak elkartu beharko ditugu norbait falta denean. Gaixoaldiak betetzeko ordezkapenak ere ez dituzte beteko 15 egun pasa arte, eta beraz arazo handiak izango ditugu...», esan du Lasartek.

Antolaketa berria

Murrizketek ahal den gutxien eragiteko nola antolatuko diren galdetuta, irakasleekin «nolabaiten akordioak» egin beharko dituztela dio: «Arlo zehatzak ematera etorriko diren irakasleekin –musika, soinketa, ingelesa...– nolabaiten akordioak egin beharko ditugu, bikoizketak egingez».

Honek guztiak, hortaz, eragin negatiboa izango du, hezkuntza kalitatea jaisteko arriskua baita; «ordezkapenak gaixoaldiko 15 egun betetzen diren arte betetzen ez badira, ordura arte bi talde elkartu beharko ditugu, eta gure eskola txikia denez, haur



Murrizketak salatzen pasa den maiatzan, Leitzan, eginiko elkarretaratzea. HITZA

hezkuntza eta lehen hezkuntzako taldeak elkartu beharko ditugu, eta zein eskola emango dugu?».

Era berean, Lasartek diru la-

guntzak ere jaitsi dituztela salatu du, eta beraz, baliabide gutxiago ere izango dituztela nabarmendu du.

Leitzako Amazabal institutuko Peio Zestau zuzendaria ere iritzi berekoa da: «Hezkuntzaren kalitatean eragingo dute murrizketek». Institutuan lau irakasle gutxiago izango dituzte, gutxi gorabehera, datorren ikasturtean, eta ikasle kopurua mantendu egingo da; 170 bat ikasle izango dituzte Amazabalen. «Ikasturte honetan 32 irakasle egon gara, eta murrizketen ondorioz, datorrenean lau irakasle pasata gutxiago izango gara – irakasle batzuk ordu ba-

tzuk bakarrik ematen dituzte, eta horregatik ez da kopuru zehatza».

Hemen ere irakasle bakoitzak bi saio gehiago eskaini beharko ditu, eta beraz, 18tik 20ra pasako dira. «Orain arte arratsaldeak curriculum lantzeko erabiltzen genituen, baina orain orduak goizerra pasa eta zaintzak egiteko erabiliko ditugu», azaldu du Zestauk.

Zestauk eta Lasartek, dena den, ikasturtea hasterakoan hartuko diote neurria ikasturteari eta murrizketei, eta orduan ikusiko dute argiago nola moldatu beharko diren hezkuntzaren kalitatea mantendu ahal izateko.

@ [tolosaldea.hitza.info](https://www.tolosaldea.hitza.info)

QR kodea eskaneatuta

Nafarroako hezkuntza publikoko ordezkariek ekaina bukaeran

Hezkuntza kontseilariarekin biltzeko egindako saiakeraren bideoa ikusi daiteke.



Irudia ◊ Gaztelu



HAURREN MASAJEA

Gazteluko Kultura Batzordeak lanean jarraitzen du herrian ekitaldiak antolatuz, eta horietan azkena, haurrentzako masaje ikastaroa izan da. Gaztelu herri txikia da, baina batzordetik adierazi dutenez, haur dezente daude, eta horregatik antolatu zuten tailerra. Ikastaroa Nora Saezek eman zuen eskola zaharrean, eta antolatzaileak kontentua daude izandako parte hartzearekin. HITZA

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



LEHEN URTEURRENA

**LURDES
BALERDI
MUNDUATE**



*Urte bat pasa da
gure artetik joan zinetik.
Erraza izan da zu maitatzea,
eta ze zaila zu gabe bizitzea.*
MAITE ZAITUGU

Zure ahizpa, anaiak-koinatak eta ilobak

Alegian, 2012ko uztailaren 5ean



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
SM-ko kideak:**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Herriko jaietako haur danborradarako entsegua egingo dute gaur, 20:00etan, Belabietako kiroldegian. Bertan parte hartu nahi dutenek Zubiaurre, Sendi Ekintza, Txumitxa, Dannon, Ostaize eta Gaztelubide tabernetan eta kultur etxean dauden zerrendetan eman behar dute izena.
 - **Leitza.** Masaje tailerra egingo dute gaur, 18:30etik aurrera, Atekabeltz gaztetxean.
 - **Tolosa.** Asuncion klinikak antolatutako elikadura ohiturei buruzko mahai ingurua, gaur, 19:00etan, Zerkausian. Asuncionezko zainketa intentsiboko guneko burua den Luis Angel Samaniego, klinikako dietetika aditua den Cristina Perez Garaye eta Frontoi jatetxeko Roberto Ruiz sukaldariak hartuko dute parte. Ruizek jakikiak prestatu eta bertaritzen diren artean banatuko dituzte.
- ZINEMA**
- **Tolosa.** Zine forumaren barruan gaur, *Take Shelter* filma ikusi ahal izango da, jatorrizko bertsioan, 19:15ean eta 21:45ean.

ERAKUSKETAK

- **Ibarra.** Kultur lantegietako ikasleen lanekin osatutako erakusketa ikusi daiteke, kultur etxean. Bihar izango da azken eguna.
- **Alegia.** Mirari Bengoaren margolanak ikusi daitezke, herriko jaiak arte, Jubilatuen tabernan.
- **Tolosa.** *Ni Pinotxo* naizera-kusketa ikusi daiteke, Topic zentroan, irailaren 23a arte. Ostiralean eta larunbatean bisita antzeztuak eskaintzen dituzte.

Irudia Tolosa



LIZARDIREN OROITARRIAREN BUELTAN

Irakurle batek Tolosako Urkizun dagoen Lizardiren omenezko orotarriaren inguruan egiten ari diren pistaren argazkiak bidali dizkio TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. Irakurle honek nahiago ditu bidezidorrak mendiko pistak baino eta horregatik egin du salaketa. HITZA Tolosako Udalarekin jarri da harremanetan eta bertan, bidea pribatua dela azaldu dute. «Inguruko baseritar batek lursail batetik egurrak ateratzera doa, eta mendi pistak erabiliko baditu ere, beste leku

batzuetara iristeko bidea egin behar du», azaldu dute. Une honetan lanak geldituta daude baimenak bideratzen ari direlako eta jabeak zenbait baldintza bete behar dituelako. «Udalean badugu herri bideen inbentarioa, non bide publikoak zeintzuk diren azaltzen den, eta bide hori pribatua da, nahiz eta jendeak leku batzuetara iristeko erabiltzen dituzten, eta jabeek ez zaien inporta, baldin eta bidea txukun uzten bada, ez badituzte arazoak sortzen...», esan dute. HITZA

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
 - **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazita-ko esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!



Sari mundialak!

